



2016eko MARTXOAREN 15EKO BILKURAKO AKTA

Bilkura: Ohikoa

Eguna: 2016/03/15

Ordua: 19.00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bilduak:

Olatz Iriarte Argaya. Alkatea

Ane Garmendia Gorostidi. Zinegotzia

Jokin Garmendia Etxeberria. Zinegotzia

Luis Lopez Garcia Uceda. Zinegotzia

Mikel Telleria Irastorza. Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA

- 1.-2016-02-16eko Bilkurako akta onartzea hala balegokio.
- 2.-Dorregiko bidearen inguruan jasotako eskera aztertu eta dagokiona erabaki.
- 3.-Errilla baserriko jabeak luzatu duen eskaeraren inguruan dagokiona erabakitzea.
- 4.-Abali maritxunearen ondoko bordan inguruan jasotako eskaeraren inguruan dagokiona erabakitzea.
- 5.-Eudelen proposamena, langile publikoen ordainsarien inguruan esaten dena agertu eta dagokiona erabaki.
- 6.-Hileko ordainketen zerrenda onartu
- 7.-Norberak lekarkeenak.



1.-2016-02-16EKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO.

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2016-02-16ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira. Hainbat zuzenketa egin ostean onartutzat eman da.

2.-DORREGIKO BIDEAREN INGURUAN JASOTAKO ESKAERA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.

Carlos Izagirre Gaztañagak , Dorregi baserriko bidearen inguruko gora beherekin kexa bat aurkeztu du udalean , 2016eko otsailaren 17ean . Kexaren azalpena era honetara egin da:

Dorregi bidean lur jauzia egin da eta ur hodia itxi egin da. Bidearen zoladuran todo uno materiala bota zen aurreko urtean eta dena urak eramán duela. Eta udalari eskatzen dio: udalak begiratu, eta irtenbide posible bat bilatzea goitik jaisten diren ur kargarenak .

Mahaikideek azaldu dute, gaiaren inguruko informazioa bildu eta ondoren gauzak argitzeko elkarrekin biltzeko bilera batetara deituko dituela alkateak .

3.-ERRILLA BASERRIKO JABEAK LUZATU DUEN ESKAERAREN INGURUAN DAGOKIONA ERABAKITZEA.

Errilla baserriko jabeak, baserriaren aleroa zerbait handitzeko udal baimena eskatzen du.

Eskaera hau lehen bideratu izan dela eta onartua baina exekuzioa oraindik egiteko duela. Horregatik, honako dokumentazioa aurkeztuaz, eskabidea berriro egiten du:

.-ESKABIDE ORRIA

.-ALEROAREN GAU EGUNEKO EGOERA ETA ONDORENGO EGOERA

.-AURREKONTUA : 2.650 €

Egin behar den obra txikia dela eta, arau subsidiarioek kontrajartzen ez direnez, ERABAKI DA:

.-Errilla baserriko teilatuaren horma luzatzeko baimena onartzea , aurkeztu duen neurrietara.



.-Aurkeztutako aurrekontuaren %0,625, eraikuntza eta obraren zerga ordaintzea , hau da, 16,56 €.

.-Obra egiteko behar diren seguritate neurriak betearaztea .

4.-ABALI MARITXUNEAREN ONDOKO BORDAN INGURUAN JASOTAKO ESKAERAREN INGURUAN DAGOKIONA ERABAKITZEA.

Abali maritxunearen baserriko jabeak, baserriaren ondoko bordako teilatua eraberritzeko baimena eskatzen du.

Horregatik, honako dokumentazioa aurkezten du:

.-ESKABIDE ORRIA

.-ALEROAREN GAU EGUNEKO EGOERA ETA ONDORENGO EGOERA

.-AURREKONTUA: 5.491,80 €

Egin behar den obra txikia dela eta, arau subsidiarioek kontrajartzen ez direnez , ERABAKI DA:

.-Abali maritxunea baserriko ondoko bordaren teilatua berritzeko baimena onartzea , aurkeztu duen neurrietara.

.-Aurkeztutako aurrekontuaren %0,625, eraikuntza eta obraren zerga ordaintzea , hau da , 34,32 €.

.-Obra egiteko behar diren seguritate neurriak betearaztea .

5.-EUDELEN PROPOSAMENA, LANGILE PUBLIKOEN ORDAINSARIEN INGURUAN ESATEN DENA AGERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.

Idazkariak ,ondoren , Eudelek udal honetara bideratu duen gomendioa mahaikideei jakinarazten die , , eta hitzez hitz honela esaten da :

“EUDEL - Euskadiko Udalen Elkarteak udalei, mankomunitateei eta gainerako erakunde publikoei GOMENDATZEN DIE euren instituzioetan honako neurri hauek onartu ditzaten:

ERABAKITZEKO PROPOSAMENA

1.- 2015ean %0,6ko FUNTSA ZUZKITZEA MODERNIZAZIORAKO ETA PRODUKTIBITATERAKO (2015eko azaroaren 11n EUDELeK



egindako proposamenaren 5. puntuaren 3. paragrafoarekin jarraituz – I. Eranskina). Ekitaldi honetan ahalegin berezia egin denez eta konpromiso publikoak bete direnez, neurri batean aurre egin ahal izan zaio langile publikoek azken ekitaldian galdutako erosketa-ahalmenari. Hori dela eta, 2015ean oinarritzko ordainsarien eta ordainsari osagarrien soldata-masaren %0,6ko funtsa zuzkitu beharko litzateke, zerbitzugintza publikoa modernizatzeko eta arrazionalizatzeko eta erakundearen produktibitatea hobetzeko. Hartara, ekitaldi honetan bertan betearazi liteke, ahal dela; edo aurrekontuaren arabera halakorik egiterik dagoenean, besterik adierazi ezean, 2016 urtearen barruan saiatuz.

2.- LANGILE PUBLIKOEN 2012ko APARTEKO ORDAINSARI

GEHIGARRIA BERRESKURATZEA (2015eko azaroaren 11n EUDELeK egindako proposamenaren 2. puntuarekin jarraituz – I. Eranskina).

(OHARRA: Oraindik ordaindu/berreskuratu ez duten udalentsat. Soil-soilik aparteko ordainsaria sortu zuten langileei)

2015ean, 2012ko aparteko ordainsaria ordaindu beharko litzateke %50,27ko ehunekoetan (%24,04+%26,23ren baliokidea), abenduaren 26ko 36/2014 Legean eta irailaren 11ko 10/2015 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa kontuan hartuta, hurrenez hurren.

Halaber, 2016an eta, aurrekontuaren arabera, ahalik eta lasterren, 2012ko aparteko ordainsariaren 91 egunei dagokien eta berreskuratu gabe dagoen gainerako kopurua (%49,73ren baliokidea) ordaindu beharko litzateke, 2016ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 48/2015 Legean zehaztutako aukera kontuan hartuta.

3.- 2016ko EKITALDIAN ORDAINSARIA %1 GEHITZEA (2015eko azaroaren 11n EUDELeK egindako proposamenaren 5. puntuaren 4. paragrafoarekin jarraituz – I. Eranskina).

2016ko ekitaldirako, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak %1 gehitu beharko lirateke 2015eko abenduaren 31n indarrean daudenen aldean. Horrela, erkaketako bi epealdietarako homogeneotasuna lortuko litzateke langileen kopuruari eta antzintasunari begira, 2016ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean zehaztutako aukera kontuan hartuta.

4.- EUDELI JAKINARAZTEA

Erabakitzen da organo eskudunak gomendio hau betetzeko hartutako



erabakiari buruzko jakinarazpena EUDEL - Euskadiko Udalen Elkarteari bidaltzea.

Idazkariak, Eudelen gomendioen aurrean honako informazioa mahairatzen du :

- 1.- 2015ean %0,6ko FUNTSA ZUZKITZEA MODERNIZAZIORAKO ETA PRODUKTIBITATERAKO deritzan kontzeptua , udal administrazioan ez duela inolako babes juridikorik , eta arazoak sor ditzaketela , balioa gabea dela aitortuaz.
- 2.- LANGILE PUBLIKOEN 2012ko APARTEKO ORDAINSARI GEHIGARRIA BERRESKURATZEA.Baliarraingo kasuan , ordainsaria udalak langile bakoitzari eskuratu izan ziola dekretuak agintzen zuen ondorioetarako .
- 3.- 2016ko EKITALDIAN ORDAINSARIA %1 GEHITZEA Igoera hau,legezkoa dela eta onargarria dela .

Eta mahaikideek ahobatez ERABAKI DUTE :

- 1.- 2016ko EKITALDIAN ORDAINSARIA %1 GEHITZEA, eta eragina 2016eko urtarrilaren 1etik izatea .
- 2.-Eta erabakiaren berri Eudeli jakinaraztea.

6.-HILEKO ORDAINKETEN ZERRENDA ONARTU

Ondoren , agertzen diren ordainketak onartu dira :

TITULARRA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
ARRETXE LORATEGIAK, CB	EMAKUME EGUNEKO LOREAK	120,01 €
ILARKI	OTSAILEKO ETXETZ ETXEKO LAGUTNZAZERBITZUA	1.819,84 €
OIHANA ORTIZ DE ZARATE	HAURRESKOLA MARGOTZEKO MATERIALA	8,15 €
IZENPE	ZIURTAGIRI KORPORATIBO PUBLIKOA	87,01 €
ABALTZISKETAKO UDALA	IDAZKARI KONPARTITUAREN GSTUAK "DERECHO LOCAL"	305,22 €
COLOWALL ETXE APAINKETAK	HAURRESKOLA MARGOTZEKO MATERIALAK	113,88 €
AIZKORPE	PARKEKO LUMINARIAK KONPONTZEKO LANAK	366,46 €
ESTITXU GAZTAÑAGA PETISCO	OTSIALEKO DANTZA IKASTAROA	120,00 €
MIKEL MUÑAGORRI LASA	OTSAILEKO INGLESEKO IKASTAROA	75,00 €
ANE ARTUTXA DORRONSORO	OTSAILEKO MUSIKA IKASTAROA	72,00 €
MIREN GARMENDIA	GILTZEN KOPIAK, KEY-LAN	8,00 €



CAROL OTERO DOMINGUEZ	PILATES IKASTAROAK (ABENDUA, URTARRILA, OTSAILA)	430,00 €
-----------------------	--	----------

7.-NORBERAK LEKARKEENAK.
BAT .-ILE APAINDEGIAREN LIZITAZIOA ONARTZEKO EPAI MAHAIAREN
PROPOSAMENA ONARTZEA .

ILE APAINDEGI DEIALDIAREN PROPOSAMENAK IREKI ETA ESLEIPEN
PROPOSAMENA LUZATZEA

Baliarraingo udalak , 2016eko urtarrilaren 19ko osoko Bilkuran , , beste gaien artean , Baliarraingo ile apaindegia kudeatuko duen baldintza plegua eta deialdia egitea onartu ziren .

Deialdia , 2016eko otsailaren 8eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zen .

Jendaurreko denboraldian ez da inolako alegaziorik tarteratu eta deialdian aurrera jarraitu zuen .

Eskaerak aurkezteko epea 2016eko otsailaren 29ean amaitu zen , eta denboraldi horretan , proposamen bat jaso da .

Proposamena , Larraitz Alonso Garmendiarena da , eta honako dokumentazioa aurkeztu du :

B KARTAZALEAN

Baldintza pleguetan agertzen den proposamen eredia sinatua , non bertan jasotzen diren adierazpenak , non , baldintza plegua ezagutzen duela eta bertan esandakoa onartzen duela esaten duena , kontratuan esango direnak burutu dituela eta lan eta zergen gaineko legedi araudia beteko duela zin egiten du .

A KARTAZALEAN

.-Zerbitzuaren txostena bertan ordutegia , zerbitzuen deskribapena , ordutegiaren moldaketak eta prezioak jasotzen dira .



- .-N..A.N. ren kopia
- .-Jarduera ekonomiko gaineneko zergan alta emana , 2013eko abenduaren 18tik hasita .
- .-Foru ogasuneko eta gizarte segurantzako ordainketetan eguneratua egotea .- Asegurua , non erantzukizun zibilaren aseguruia 600.000 eurotako jasotzen den .Kasu honetan urteko polizaren ordaindu zianaren agiria aurkeztu beharko da .
- .-Ile apaindegi eta ikastaroen agiriak .
- .-Administrazioarekin kontratatzeko batera ezintasunik ez duenaren aitortpena .
- .-Erabiliko dituen materialen aitortpena.

DERRIGORREZKO IRIZPIDEAK

- 1.-Proposamena aurkeztu duenaren hizkuntza euskara dela bermatzen da .
- 2.-Eta asteazkena eta ostirala egunetan zerbitzu finkoa eskainiko du .

Derrigorrezko irizpideak bete ditu .

BALORAZIO IRIZPIDEAK

1.-ZERBITZUAREN PRESTAZIOAREN HOBARIA .

Zerbitzua aldea 2 € / 5 puntu
 1€/2puntu

Emakumeak

Garbitu eta orraztu, 2 €	5	
Moztu eta orraztu , 3 €	5	2
Tintea, moztu ,orra, 5 €	5	6
Tinte,dizd,orraz,moz 4€	5	4

Gizonak

Moztea 3€	5	2
--------------------------------------	---	---

Haurrak

Moztea 3€	5	2
--------------------------------------	---	---



2.-ZERBITZUAREN MAIZTASUNA .

Astean bi egun proposatu ditu eta gehiago beharko balira beharren arabera eskainiko luke .Beraz kasu honetan, astean bi egun egiten dituelako kasu honetan ez da punturik emango , flexibilitatean baloratuko delako .

3.-ZERBITZUAREN FLEXIBILITATEA

Kasu honetan , flexibilitatea eskaintzen duenez , 10 punturekin baloratzen da .

4.-BESTELAKO ZERBITZUAK

Ile apaindegi zerbitzuaz gain , makilajea,, produktu eta tratamendueen aholkularitza, manikura eta pedikura , bestelako tratamenduak eta depilazioa eskaintzen ditu , beraz 5 puntu izango ditu .

BALORAZIOA GUZTIRA ... 61 PUNTU .

KONTRATAZIO MAHAIK PROPOSATZEN DU :

Baliarraingo ile apaindegi zerbitzua eskaintzeko jaso den proposamenak 61 puntu lortu dituela eta LARRAITZ ALONSO GARMENDIARI esleitzea .

Eta kontratua sinatzerakoan honako alderdi hauek kontutan hartzea .

- .-Aseguru polizaren ordainketa agiria eskuratzea .
- .-Behin betiko bermea udalean uztea , 564,00 euro
- .-Ile apaindegian prezioak jartzea , eta bertan edukitzea .

Baliarrainen , 2016eko martxoaren 1ean .

Eta proposamenaren berri jakin ostean , mahaikideek ERABAKI DUTE :



- 1.-BALIARRAINGO ILE APAINDEAGIAREN KONTZESIOA LARRAITZ ALONSO GARMENDIARI ONARTZEA .
- 2.-ASEGURU POLIZAREN ORDAINKETA EGUNERATUA EGOTEAREN ERREZIBOA ERAKUSTEA
- 3.-BEHIN BETIKO BERMEA, 564 EUROTAKOA UDALEAN UZTEA .
- 4.-PREZIOAK IKUSGAI JARTZEA .
- 5.-ETA HITZARMENA SINATZEKO ALKATEA BAIMENTZEA .

BI.-Alkateak jakinarazten du Tolosaldeko Atariako ordezkariarekin bildu dela eta hitzarmena sinatzeko proposamena luzatu diola bi urterako . Hitzarmenaren barruan , nagusiki , biztanleko 4 euro emateko proposamena jasotzen dela 2016 urtean eta 5 euro biztanleko 2017 urtean.

Alkateak proposatu du :

Bi urtetarako hitzarmena sinatzea ez duela nahi

Eta 2016 urtean 2015 urtean emandako diru laguntza berdina mantenuko lukeela .

Eta mahaikideak ERABAKI DUTE :

.-Alkatearen proposamena ontzat ematea eta horrela Atariari jakinaraztea.

Eta besterik ezean ,arratsaldeko 20:30 etan bilera amaitutzat eman zuen alkateak .

Alkateak

Idazkariak